

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

NAFARROAKO GOBERNUAREN GASTU-POLITIKA ELAren BALORAZIOA

AURKIBIDEA:

0. SARRERA
1. RAJOYK EZARRITAKO AURREKONTU MUGA ONARTZEN DA
2. NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRU-SARRERAK
3. GASTU PUBLIKOAREN BEHERAKADA
4. OSASUNEN GASTU PUBLIKOA
5. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA
6. EUSKERA
7. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA
8. POBREZIA ETA GIZARTE-PRESTAZIOAK
9. AZPIEGITURAK. Abiadura Handiko Trena
10. GENERO BERDINTASUNA
11. ELKARRIZKETA SOZIALAREN FINANTZAKETA
12. ONDORIOAK

0. SARRERA

Dokumentu honetan Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika aztertuko dugu. Hori egiteko honakoak baliatuko ditugu: aurreko ekitaldietan gauzatu den gastu erreala, zerga-politika eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren 2013rako Proiektua.

2013rako aurrekontu-proiektua Parlamentuan atzera bota dute (oraingoan UPNk ez zeukan, ohikoa zen moduan, PSNren babesari), eta horrenbestez 2012ko aurrekontua luzatu egingo da. Haatik, argi dago Yolanda Barcinaren gobernuak 2013ko aurrekontu Proiektuan jasotako murrizketak aplikatu egingo dituela, aurrekontuak luzatzeak hori egiteko aukera ematen baitio. Nafarroako Gobernuak izatez bere proiektua betetzeko baimendutako gastua ez du beteko.

1. RAJOYK EZARRITAKO AURREKONTU MUGA ONARTZEN DA

Nafarroako Gobernuaren gastua baldintzatuta dator hainbat bidetatik, besteak beste, Madrilek 2013rako autonomia-erkidegoentzat ezarritako aurrekontu defiziterako muga: BPGaren %0,7 (131,06 milioi euro Nafarroari dagokionez), 2012ko %1,5aren aldean.

Gobernu nafarrak muga hori aintzat hartzea erabaki du, eta baztertu egiten du Hitzarmen Ekonomikoak diru-sarrerak eta gastuak erabakitzeko ematen dion ahalmena; Madrilek ezarritako murrizte-politikei men egite die. Hau oso larria da gaur bizi dugun egoeran, izan ere, Nafarroako Gobernuak zerga- eta gastu-politika handinahiak egin beharko lituzke, nafar gizartearentzako egokiak eta hobera egiten lagungarri liratekeenak.

Zorpetze publikoa

Rajoyk ezarritako aurrekontu-muga onartuta, Gobernuaren zorpetzeko aukera mugatuta geratzen da; bide hau baldintzatuta dago gastuei aurre egiteko behar diren diru-sarrerak bilatze aldera.


Kopurutan, Nafarroako Gobernuak 2013rako aurreikusi dituen **diru-sarrerak 398,3 milioi euro dira**; 150 milioi zor publikotik etorriko lirateke, 179,8 milioi, Estatuko erakundeek emandako maileguren bidez, eta 68,5 milioi, Abiadura Handiko Trenaren ibilbide nafarreko gastuak eragiten duen zorpetzearen interesak izango dira.

Diru-sarrerak ekartzeaz gainera, zorpetze honek gastua ere esan nahi du, interesekin itzuli behar baita. Proiektuan zorpetzeari dagokion **aurreikusitako gastua 284,4 milioi euro dira** (91,8 milioi interesak ordaintzeko eta 192,6 amortizazioetarako).

Zorpetzea ohikoa da administrazioetan. Nafarroako Gobernuak urriaren 31n aurreikusten zuenez, 2012ko abenduaren 31rako zorpetzea 2.609,5 milioi euro izango da, hots, BPGaren %14.

Ondoko grafikoan ikus daiteke zorpetzeak nafar ekonomian azken hamarkadan izan duen pisuaren bilakaera. 2007ra arte zorpetze maila piska bat jaitsi zen, eta hortik aurrera goranzko joera nabarmena hartu du.

Zorpetze publikoari buruz gogoeta egin behar da zertarako erabiltzen den, esaterako oinarritzko beharrezkoen baliatzen ote den, ingurumenean kostu handia duten alferrikako mega-azpiegituretan xahutzeko, edota gero eta gehiago behar duten erakunde boteretsuetara bideratzeko.

NAFARROAKO GOBERNUAREN ZORPETZEA
(%/BPGd). 2002-2012 (*)

Iturria: Nafarroako Gobernua

(*): Saldoa 2012ko urriaren 31n

Soilik 2011ko ekitaldian hipoteka bat hartu zutenek beren gain hartutako zorra BPGaren %228 izan zen; beraz, zorpetze publikoa bere tokian kokatu beharra dago. Azken urteetan oinarrizko beharizana den etxebizitza eskuratzeko hartutako zorrak kezkatzeko moduko kopuruak islatzen ditu.

2. NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRU-SARRERAK

Zalantzarik gabe, Nafarroako Gobernuaren gastua diru-sarrerek ere baldintzatzen dute, eta hauek zerga-politikak zehazten ditu. ELAK aspaldian salatu izan du Nafarroako zerga-politika (Hego Euskal Herriko gainerako lurraldeetako bezalaxe). Aurrekontuen azterketak beste puntu batzuk aipatzeko modua ematen digu, izan ere, hainbat arrazoi medio diru-sarrerek askoz txikiagoak baitira.

Iruzur fiskalaren jazarpena

Datu publikoek diotenez, izugarrizko iruzur

fiskala egiten da soldatapeko ez diren errentetan. Iruzur hau ez balego, Nafarroako Ogasunaren diru-sarrerek askoz handiagoak lirateke.

Aurrekontu proiektuan jasota dagoenez, 2013ko ekitaldirako ikuskaritza fiskalera 1,7 milioi euro bideratuko dira, hots, 2012 urtearekiko 120.243 euro gutxiago eta 2011arekiko 20.472 euro gutxiago; areago, 2010ean baino 1,1 milioi euro gutxiago dira, urte horretan jaitsiera handia izan bazen ere.

Horrela, ikuskaritza fiskalerako aurreikusi den gastua BPGaren zati barregarria da, %0,0081, azken hamar urteetako txikiena. Datuok agerian uzten dute gobernu nafarrak iruzur fiskala jazartzeari zer garrantzi hutsala ematen dion.

Onura fiskalak

Nafarroako Ogasunak urtero dirutza bildu gabe uzten du, onura fiskalen ondorioz (kenketak, salbuespenak, hobariak, etab.)

Onura fiskalen ondorioz 2013an bilduko ez den kopurua 1.296,4 milioi euro izango da, hots, BPGaren %6,3. Honek esan nahi du Nafarroako Ogasunak diru hori bilduko balu gobernuaren gastua 1.296,4 milioi eurotan gehitu aha izango litzatekeela.

Azken erreforma fiskalak

Joan den abenduaren 13an Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hainbat erreforma fiskal egitea erabaki zuen (PFEZ, Ondarea, Sozietateen Zerga...); honela laburbilduko genituzke:

Erabakitako aldaketekin urtean 65 milioi euro gehiago besterik ez da bilduko, kopuru oso eskasa. Kontutan izan behar da Nafarroako Gobernuak 2013rako aurkeztu zuen

aurrekontuan gastua 224 milioitan murrizten dela, erreformei esker bilduko den kopurua hiru eta erdi bider.

Aldaketak axalekoak dira. PFEZe an ukitu txiki batzuk baino ez dira, gehien dutenek gehiago ordaintzen dutelako propaganda egin ahal izateko. Dena dela, nabarmen geratzen da Rajoyk espainiar estaturako ezarri duen erreformaren azpitik dagoela. Ondarearen gaineko Zergari erabaki dena aurrez indarrean zegoen arauetara itzultzea da, zati batean. Sozietateen gaineko Zergan egindako aldaketekin, berriz, enpresek irabaziei dagokien kopurua baino askoz gutxiago ordaindu behar dute.

Iruzur fiskalaren jazarpenarako ez da erabakirik hartu. Arazo hau izugarri handia da, eta hazten ari da. Haatik, egin den gauza bakarra gaiari buruzko txosten bat eskatzea izan da, urtebete barru prest egon dadin. Nafarroako Gobernuak iruzur fiskalaren aurkako neurririk ez hartzea onartu ezinako adar jotzea da.

Erreforma fiskal hau ezdeusa da, eta Nafarroako biztanleak azken urteetako murrizte politika pairatzera zigortzen ditu. Politika honek ondorio larriak ditu: langabeen kopurua gehitzen da, gizarte-babesaren gabezia eta txirotasuna hazi, eta zerbitzu publikoak okerrera egiten dute.

Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkurak ez lituzke aldaketa hauek onartu beharko, eta azken hamarkadetan ezarritako erreformetan atzera egiteko arau berriak bozkatu beharko lituzke PFEZ, Sozietateen Zerga edota Ondarearen gaineko Zergari dagokienez.

3. GASTU PUBLIKOAREN BEHERAKADA

Nafarroako Gobernuak 2013ko ekitaldirako 3.597,7 milioi euroko gastua aurreikusi du; kopuru horretatik kendu egin beharko lirakeke Abiadura Handiko Trenera bideratuko diren 68,5

milioi, izan ere, Gobernuak kopuru hau aurreratu egiten baitu, gero Espainiako Gobernuak itzuliko badio ere. Honela, 2013ko ekitaldirako aurreikusitako gastu erreala 3.529,2 milioi euro da, 2012ko aurrekontu finkatua (gauzak bere horretan jarraituz gero 2012ko gastua izango dena) baino 224,3 milioi gutxiago, eta 2011n gauzatutako gastua baino 127,1 milioi euro gutxiago.

NAFARROAKO 2013RAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA. MILIOI €, GUZTIRAKO KOPURUAREN % ETA BPGd-aren %

	Milioi €	Guztiaren %	BPGd %
EKONOMIA, OGASUNA, INDUSTRIA ETA ENPLEGUA	1.027,8	29,1%	5,0%
OSASUNA	857,2	24,3%	4,2%
HEZKUNTZA	563,5	16,0%	2,8%
NEKAZAL GARAP., INGURUMENA ETA HERRI ADMIN.	322,3	9,1%	1,6%
P. SOZIALAK	267,2	7,6%	1,3%
PRESIDENTZIA, JUSTIZIA ETA HERRIZAINGOA	259,2	7,3%	1,3%
SUSTAPENA	241,4	6,8%	1,2%
KULTURA, TURISMOA ETARRII	43,2	1,2%	0,2%
NAFARROAKO LEGEBILTZARRA	15,5	0,4%	0,1%
NAFARROAKO KONTSEILUA	0,5	0,0%	0,0%
GUZTIRA	3.529,2	100%	17,2%

Iturriak: Nafarroako Gobernuak, IEN


Horrenbestez, nafar ekonomian sortutako 100 eurotik Nafarroako Gobernuak gastu publikora 17,2 bideratuko ditu. Hau da gastu publikoa neurtzeko modurik egokiena, izan ere, nazioarteko mailan konparazioak egiteko aukera emateaz gainera, ekonomiaren bilakaera ere aintzat hartzen baitu, eta beraz, benetan egindako ahalegina neurtzen du, kasu honetan gastu publikoari dagokionez.

Konparazio honek islatzen duenez, nafar exekutiboaren gastu publikoa ez da soilik eurotan murriztuko; ekonomiaren bilakaerarekiko ere txikiagoa izango da. Hain zuzen, Nafarroan gastu publikoaren pisua BPGko

1,46 puntu jaitsiko da 2012 urtearekiko, eta puntu bete 2011 urtearen aldean; Gobernuak 2013an 299,6 milioi euro gutxiago erabiliko ditu 2012an gastu publikoak ekonomian zuen pisuarekiko, eta 2011n baino 204,1 milioi gutxiago.

Ondoko grafikoak adierazten duenez, krisi ekonomikoa hasi zenez gero gobernuak gastu publikoan egindako ahalegina dezente jaitsi da; Nafarroako Gobernuaren gastu publikoak duen pisua oraintxe alde handiz azken hamarkadako txikiena da. Gastu publikoaren pisua 2007 eta 2009 ekitaldien artean izan zen handiena, %21 inguru. Gobernuak 2009 urteko antzeko ahalegina eginez gero (BPGaren %21,4), gastuaren pisua handiena izan zen urtekoa alegia, 2013an egiteko asmoa duena baino 855 milioi euro gehiago jarri beharko luke.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GASTU PUBLIKOAREN PISUA DUEN BILAKAERA 2003-2013 (BPGAREKIKO %)



Iturriak: Nafarroako Gobernuak, IEN

4. OSASUNEN GASTU PUBLIKOAK

Nafarroako Gobernuak 2013an osasungintzara 857,14 milioi euro bideratuko duela aurreikusitako du, 2012an baino 79,4 milioi gutxiago eta 2011n

baino 94 milioi gutxiago. Osasuneko gastua 2013an BPGaren %4,2 izango da, hamarkada guztiko mailarik apalena.

OSASUNEN GASTU PUBLIKOAK (%/BPGd).

NAFARROA, 2003-2013

2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
4,4%	4,4%	4,4%	4,5%	4,6%	4,7%	5,2%	5,4%	4,7%	4,7%	4,2%

Iturriak: Nafarroako Gobernuak, IEN


Osasuneko gastu publikoak gutxitzeak ondorio zuzenak ditu, bai sektoreko langileen baldintzetan (ordu gehiago eta lan-karga handiagoa, soldata jaitsiera, etab.), baita ematen den zerbitzuaren kalitatean ere (itxaron-zerrenda luzeagoak, paziente bakoitzeko denbora gutxiago, etab.). Herritarrek oro har jasaten dituzte osasun-arreta okerragoaren ondorioak, baina areago emakumeek, izan ere, eurek osatu behar baitituzte, ahal duten heinean, osasun-zerbitzuetako gabeziak, edota sortzen diren zaintza beharrak.

Kalterako bilakaera honek are gehiago urruntzen gaituzte nazioarte mailako gastu kopuruetatik; Nafarroa ez zegoen, aurretik ere, oso toki onean. Hobe esanda, Europako inongo estatutan ez da Foru-Erkidegoan baino ahalegin txikiagorik egiten. Nazioarteko azken datuek islatzen dute Nafarroan osasuneko gastu publikoak BPGaren %5,2 izan zela, ELGEn batez bestekoa %6,9koa zen bitartean. Beraz, 2009an Nafarroan osasungintzako gastu publikoari dagokionez ELGeko batez besteko ahalegina egin balitz, jarritakoa baino 213,1 milioi euro gehiago bideratu behar izango ziratekeen.

Aldea are handiagoa litzateke konparazioa osasunean ahalegin askoz handiagoa egiten duten europar estatuarekin eginez gero: Danimarka (BPGaren %9,8), Herbehereak (%9,5), frantses Estatuak (%9,2), edota Alemania (%8,9), batzuk aipatzearen. Espainiar estatuak berak Nafarroak baino BPGko 1,8 puntu gehiago ematen du

osasunerako.

OSASUNeko GASTU PUBLIKOA (%/BPG).
ELGE, 2009()*



Iturria: ELGE

(*): Portugalgo informazioa 2008ko ekitaldiari dagokio, eta Greziakoa, 2007koari.

5. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

Nafarroako Gobernuak 2013an hezkuntzara 563,13 milioi euro bideratzea erabaki du, 2012an baino 34,2 eta 2011n baino 71,2 milioi gutxiago. Horrenbestez, hezkuntzako gastu publiko 2013an BPGaren %2,7 izango da, hau ere azken hamar urteetako portzentajerik txikiena.

HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA
(%/BPG). NAFARROA, 2003-2013

2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
3,2%	3,1%	%2,98	%3,01	%3,07	%3,29	%3,51	%3,47	%3,16	%2,98	%2,75


Iturriak: Nafarroako Gobernuak, IEN

Hezkuntzako gastu publikoaren jaitzierak langileen baldintzetan eragina du: Gaixotasun kasuetarako ordezkapen gutxiago, ikasgela eta profesional bakoitzeko ratioen igoera, langile gutxiago kontratatzearen ondorioz eskola ordu gehiago, soldata murrizketa, etab. Horrela irakaskuntzaren kalitateak eta, azkenean, ikasleen hezkuntza mailak ere okerrera egiten du. Ez daukagu informaziorik gastua, ezta hezkuntzate bakoitzeko murrizketa zehatz aztertzeko. Murrizketek 0-3 urteko zikloan egiten diren heinean, emakumeengan eragin berezia izango dute, batik bat kontziliazio eta promozio aukeretan.

Osasuneko gastu publikoan gertatzen den antzera, hezkuntzan ere Europako beste inongo estatuk ez du Nafarroako Gobernuak baino gutxiago gastatzen. Hain zuzen, nafar gobernuak hezkuntzan ELGEko estatuaren batez besteko ahalegina egin balu, 2009ko ekitaldian jarritakoa baino 429 milioi euro gehiago bideratu beharko zituzkeen. Espainiar estatuak Nafarroako baino BPGko 1,5 puntu gehiago bideratzen du hezkuntzako gastu publikora.

HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (%/BPG).

ELGE, 2009



Iturria: ELGE

6. EUSKARA

Euskara gaur ez da inondik ere bermatutako eskubidea Nafarroan. Aurrekontuetan jasotako kopuruak honen adibide bat besterik ez dira. 2013ko ekitaldian euskarari buruzko kontuetarako 2,3 milioi euro aurreikusi dira, hots, BPGarekiko %0,01 barregarria. Aspaldidanik kopurua aski meharra izanagatik, urtez urte murriztu egin dute.

Ondoko koadroan ikus daiteke gai honetarako kopurua urtez urte nola gutxitu den, eta ondorioz, 2013ko Aurrekontu Proiektuetan islatzen den ahalegina 2008koa baino hiru bider txikiagoa dela.

EUSKARAKO GASTU PUBLIKOA.

NAFARROA, 2008-2013 (EUROTAN ETA %/BPG)

	2013 Aurrek.	2012 Kontsolidatua	2011 Burutua	2010 Burutua	2009 Burutua	2008 Burutua
Euro	2.353.784	2.526.625	2.692.360	3.078.266	7.475.579	7.610.458
BPGd %	%0,01	%0,01	%0,01	%0,02	%0,03	%0,03

Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

Euskararentzako gastuaren bilakaera bat dator hizkuntza desagerrarazteko politikarekin; honek hizkuntza gutxituak babesteko eta sustatzeko nazioarteko gomendioei entzungor egiten die, baita herritarrei ere, zeinek gero eta argiago babesten baitute euskara, eta euskaraz bizi nahi baitute. Euskararen irakaskuntzarekin gertatzen dena hizkuntzarekiko jarreraren isla argia da.

Euskarazko irakaskuntza

2012-2013 ikasturtean, unibertsitate mailako ez diren ikasleen %56,42 G (gaztelaniazko) eremuan matrikulatu zen, %25,91, D eremuan (euskaraz, gaztelania ikasgai delarik), %17,46, A eremuan (gaztelaniaz, euskara ikasgai gisa), eta %0,22, B eremuan (euskaraz, gaztelania ere ikasgai eta erabilpenerako hizkuntza dela). Horrenbestez, ikasleen %43,58ak erabaki zuten euskara beren hezkuntzan nolabait present egotea. Gainera, azken 10 urteotan matrikulatze kopuruetan 3 puntu A eredutik D eredura joan dira.

UNIBERTSITATEKO EZ DIREN IKASLEEN

MATRIKULAZIOA, EREDUKA.

NAFARROA, 2012-2013 IKASTURTEA

EREDUA	2002-2003	2012-2013
G (erderaz)	%56,28	%56,42
D (euskeraz, gaztelera asignatura gisa)	%23,00	%25,91
A (gaztelerez, euskera asignatura gisa)	%20,48	%17,46
B (euskera, gaztelera asignatura eta erabilera hizkuntza gisa)	%0,25	%0,22


Iturria: Nafarroako Gobernua

Egoeraren zein bilakaeraren datuek garrantzia dute kontutan izanez gero euskaraz ikastea ez dela bermatutako eskubide bat Nafarroako lurraldean, inguru geografikoaren baitan baizik. Ondoko mapan ikus daiteke lurraldearen erdia

baino gehiago inguru ez euskalduna dela, hots, euskara ofiziala ez den parte. Lurralde honetan A eta G ereduak dira irakaskuntzarako baimenduak eta euskarari, gehienera ere, leku hutsala ematen zaio.

Areago, Nafarroako Gobernu aspaldian ari da euskarazko irakaskuntza bermatu eta sustatu ordez eragozten duen politika garatzen. Esaterako, eremu ez euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza 2009ko ekitaldian kendu egin zuen (azken kopurua 1,8 milioi euro izan ziren).

NAFARROAKO EREMU LINGUISTIKOAK



Iturria: Euskararen Foru-Legea

Ereduek eskualdeen arabera duten presentzia 1986ko Euskararen Legearen ondorio da; euskara unibertsitate mailako ez den irakaskuntzan sartzeko eta erabilera arautzeko dekretua, berriz, 1988an erabaki zen. Begibistakoa da legedia

zaharkituta dagoela, eta ez datorrela inondik ere bat herritar nafarren egungo nahiarekin; hauen gehiengoak irakaskuntzan euskarak presentzia handiagoa izatea nahi du. Hala adierazten dute hizkuntza honen alde egiten diren ekitaldi guztiek, gero eta babes handiagoa izaten baitute.

7. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA

2013rako Aurrekontu-Proiektuak etxebizitzarako 64,3 milioi euroko gastua jaso du, hots, BPGaren %0,31, 2012ko portzentaje bera eta 2011koa baino piska bat txikiagoa (580.000 euro gehiago bideratu beharko litzateke 2011ko ahalegin bera egiteko). BPGarekiko gastua 2004tik hona ia bere hortan geratu da, baina 2007 urteaz gero behera egin du (urte horretan etxebizitzako gastu publikoa BPGaren %0,37 izan zen).

Nabarmentzekoa da PFEZean kenketak medio biltzen ez den dirua etxebizitzako gastu publikoaren bikoitza dela. Hain zuzen, etxebizitzako onura fiskalak 125,1 milioi euro izatea aurreikusten da. Baina gainera, kopuru honen %8,2 besterik ez da alokairura bideratzen, eta gainerako ia gastu guztia (%91,8) erosketarako da (zaharberritze lanetarako portzentaje txiki bat izan ezik). Beraz, arlo honetan ez biltzea erabakitzen den kopurua etxebizitzako gastu publikoan erabiliz gero, hau hiru aldiz handiagoa izan liteke; gainera, politika progresiboagoa litzateke, eta dauden beharrezan erantzun egokiagoa emango lieke.

Egoera ekonomiko eta sozialak jende asko eta asko etxebizitza uztera behartzen du, ordaindu ezinik dagoelako. 2012ko lehen seihilekoan 529 etxe-gabetze gauzatu ziren Foru-Erkidegoan (Nafarroako Auzitegi Nagusian eta Lehen Instanziako auzitegietan erabakitakoak); beraz, ia 3 etxe-gabetze egiten dira eguneko. Datuok, gainera, jabeen etxe-gabetzei buruzkoak dira soilik; hauei gehitu egin beharko genizkieke (informaziorik balego) alokairua ordaindu ezinik

kaleratutakoen kopurua (ustez aurrekoak baino handiagoak izan litezke).

Gobernu nafarrak ez du inongo politikarik egiten arazo sozial honi aurre egiteko, eta aurrekontuan etxebizitzarako egin duen murrizketarekin argi uzten du okerrera egin arren ez diola bat ere axola.

8. POBREZIA ETA GIZARTE-PRESTAZIOAK

EAPNren *Impactos de la crisis* txostenak adierazten du biztanle nafarren %13,1 2011n **pobrezia edo gizarte-bazterketa egoeran** zegoela, 2009an baino 3,4 puntu gehiago; hots, bi urtetan 75.843 pertsona gehiago. 56.500 nafar zegoen 2011n **pobrezian**, biztanleriaren %8,8, eta 2009an baino 9.838 gehiago.

Argi dago azken bi ekitaldi hauetako kopuruak 2008an krisia hasi zenetik gertatu denaren adibide bat baino ez direla, eta epe honen azterketa orokorrak **pobrezia tasen hazkunde** askoz **handiagoa** islatuko lukeela.

POBREZIA TASA ETA PERTSONA
KOPURUA. NAFARROA, 2009-2011

2009		2011		HAZKUNDEA	
7,4%	46.663	8,8%	56.500	1,4 puntu	9.838

Iturria: Impactos de la crisis, EAPN

Kezkatzeko egoera honetan Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektuak 26,1 milioi euroko laguntzak aurreikusten zituen bizitzeko modurik ez duten familientzat, hots, Gizarteratzeko Errentarako (lehengo Oinarrizko Errenta). Kopuru hau barregarria da, **BPGaren %0,13**, 2011ko kopuruaren aldean 0,05 puntu gutxiago (hori da informazioa daukagun azken ekitaldi itxia). Gizarteratzeko Errentak 2011n zuen pisuari eutsiz gero, gobernuak aurrekontuan jasotakoa baino 10,5 milioi euro gehiago bideratu beharko zukeen.

Haatik, **gizarte-prestazioetako jaitsiera** hau ez da ezustean etorri. Arlo honetan Gobernu nafarra egiten ari den murrizketaren bidetik doa, eta bere beste erabakiak tankera berekoak izan dira, esaterako joan den urtarrilean onartu zuen **Gizarteratzeko Errentaren Foru-Legea**. Lege honetan hainbat neurri zetorren **gizarte-prestazioetako gastua murrizteko**, adibidez prestazioen zenbatekoa jaitea (LGSarekiko erreferentzia kentzen zelarik); 13. hiletik aurrera murriztea; bera jasotzeko epea 24 hilabetera mugatzea; prestazioa jaso dezaketen pertsona kopurua mugatzea; egoera erregularrean ez dauden immigranteei ukatzea, etab.

Onartu ezinekoa da Nafarroako Gobernuak gizarte-prestazioetan zegoen gastu urria ere murriztea, hain zuzen behar handiena dagoen uanean.

9. AZPIEGITURAK. Abiadura Handiko Trena

ELA Hego Euskal Herrian Abiadura Handiko Trena (AHT) eraikitzearen aurka agertu izan da, batetik azpiegitura honek ez duelako trafiko arazoa konponduko, eta bestetik, ingurumenean kalte handiak eragingo dituelako, kostu ekonomiko eta sozial izugarrien truke.

Atal honetan AHT nafarrari buruzko hainbat kontu aztertuko dugu. Proiektua bi fasetan egitea aurreikusten da:

- 1.- Castejon eta Iruñerri arteko tartea, Foru-Erkidegoari dagokion zatian.
- 2.- EAerekiko lotura.

Oraingoz lehen faseari buruzko xehetasunak erabaki dira. Hain zuzen, *Convenio de colaboración entre la Administración General del Estado, la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y el ente público administrador de infraestructuras ferroviarias (ADIF) para la construcción de la línea de alta velocidad Zaragoza-Pamplona en Navarra* izeneko agirian

(aurrerantzean hitzarmena esango diogu).

Hitzarmen honek dio lehen fasearen kostua 675 milioikoa izango dela, eta horietatik 287,35 zuzenean Estatuak finantzatuko dituela; Nafarroako Gobernuak, berriz, 387,65 milioi aurreratuko ditu, espainiar gobernuak 2013tik aurrera itzuliko dizkiolarik. Hots, AHTren kostua Espainiako Gobernuak ordainduko du, Nafarroako gobernuak aurreratutako diruari dagozkion kitatu beharreko interesak izan ezik.

Hitzarmenak aurreikusten duenez, dirua honela itzuliko da:

- 2013ko ekitaldian 10 milioi euro
- 2014an, 25,65 milioi
- 2015an, 30 milioi
- 2016an, 170 milioi
- 2017an, 152 milioi.

Halere, Sustapen Ministerioaren 2013ko Aurrekontu-Proiektuak AHT nafarrerako 5,25 milioi euroko kopuru bat besterik ez du aurreikusten (behar litzatekeenaren %52,5). Honek hiru konturi buruz gogoeta egitera garamatza:

1.- **Hitzarmenaren etorkizuna.** Zehatzago, 10. klausulak dio "*Hitzarmen honen sinatzailearen batek bere gain hartutako betebeharrak konkretuak era larrian urratuz gero*" bera iraungitzeko arrazoiak da.

2.- **Zer gertatuko da nafar gobernuak aurreratu duen diruarekin:** oraingoz 140,4 milioi euro aurreratu du (5 milioi 2010ean, 1,4, 2011n eta 134, 2012an), eta 2013an beste 68,5 aurreratzeko asmoa du, badakien arren espainiar gobernuak ekitaldi honetarako adostutakoaren erdia besterik ez diola itzuliko.

3.- **AHTaren etorkizuna Nafarroan,** areago

kontutan izanik bigarren fasea egiteko akordioak ere ez dagoela.

Gauza bat bederen argi dago: Nafarroako Gobernuari azpiegitura hau uste baino garestiago aterako zaio, dirua aurreratzeagatik ordaindu beharreko interesengatik. Eta ikusteko dago oraindik espainiar gobernuak lan hauek ordainduko ote dituen.

10. GENERO BERDINTASUNA

Gai sozialetako gastu publikoan erakundeek egindako murrizketek, batik bat gizarte-zerbitzuetan, osasungintzan eta hezkuntzan, eragin handia dute emakumeengan.

Erabaki ekonomiko bat ere ez da genero-erikiko neutrala. Gure gizartean desberdintasun estruktural bat dago, emakume eta gizonen artean abiapuntua ez da bera... honek eragina du ere egiten ari diren murrizte eta austeritate politiketan.

Ongizate estatuan egindako murrizketek kalte egiten die bereziki emakumeei, erabiltzaile diren aldetik, baita zerbitzu horietako langile gisa ere. Osasungintza eta hezkuntza azken hamarkadetan feminizatu egin dira, eta lan-baldintzak okertu egin dira krisia hasi zenetik hona.

Gainera, zaintzarako gizarte-azpiegiturarik ez dagoenez (familia eta pertsona guztien dependentsia egoerei aurre egiteko gizarte-zerbitzu nahiz laguntza publiko nahikorik ez dago), emakumeek egiten dute gehienetan lan hori, bat ere aitortza sozial edo ekonomikorik jasogabe.

Aurrekontuak aztertuz gero, ikus daiteke ez direla aintzat hartzen murrizte politikak gizon eta emakumeengan duten genero-eraginak. Saileran

zehir berdintasunerako funtsak egonagatik, politika orokorretan jasotako laguntza eta zuzkidura ekonomikoak oso era desberdinekoak dira, eta horrek eragotzi egiten du genero ikuspuntutik egindako azterketa sakona egitea.

Halaber, genero berdintasuna sustatzeko mekanismo bat badagoen arren, foru-administrazioan erakunde zein sailen arteko koordinazioa ez da aurrekontuetan islatzen, legediak arlo transbertsaltzat finkatzen duen arren herri-administrazioen jardunbide guztietan genero berdintasuna integratzea.

Oro har, genero-bortizkeriarekiko politiketan kasua gertatu eta gero jarduten da, eta ez prebentzio lan gisa.

Emakumeen aurkako bortizkeriaren jazarpenarako politika publikoak berdintasun politikekin lotu behar dira; hots, genero-berdintasuneko sentsibilizazio eta prestakuntzari eman behar zaio lehentasuna. Desberdintasuna errotik erauzten ez den bitartean, izurri sozial hau ezin izango da behar bezala borrokatu.

Ez da gizon eta emakumeen kontua, pertsonena baizik; ezinbestekoa da emakumeen eskubide sozialetan aurrerapausoak egitea, gizarte berdina batera iristeko.

11. ELKARRIZKETA SOZIALAREN FINANTZAKETA

a) UGT, CCOO eta CENentzat jasotako aurrekontu-idazpenak

Nafarroa betidanik izan da gaizki izendatutako "elkarrizketa sozial" horren eredu. Hain zuzen, gobernuaren aurrekontuak ere hori islatzen du, eta idazpen ugaritako funtsak kudeatzeko aukera zuzenean eragileen esku uzten du (CEN, UGT eta CCOO).

2013ko Aurrekontu-Proiektuan zuzenean 14,9

milioi euro aurreikusten ziren UGT, CCOO eta CENentzat, irizpide objektiborik edo eskumenekiko irizpiderik gabe.

Onartu ez den Proiektuak 2012koa baino finantzaketa txikiagoa jasotzen du: 20,6 milioitik (2012ko hirugarren hiruhilekorako gastu-aurreikuspena) 14,9 milioira jaisten da 2013an. 2011n elkarrizketa sozialera 19,7 milioi euro bideratu ziren. Hiru urteok kontutan izanik, aipatutako hiru eragileentzako diru publikoa 55,3 milioi euro izan da.

Aurrekontu-idazpen hauetan sartu ditugu INAFREa bideratutakoak (berau CENek, UGTk eta CCOOek osatzen dute), baita Enplegu Zerbitzuan hirurei dagozkienak ere. Gainerako idazpenak zuzenean ematen zaizkie.

NAFARROAKO AURREKONTUETAN UGT, CCOO eta CEN-I ESLEITUTAKO KOPURUAK (milioi eurotan). 2011-2013

2011	2012	2013
19,7	20,6	14,9

Iturria: 2011n gauzatutako gastua, 2012ko hirugarren hiruhilekoan finkatutako aurrekontua,

2013rako Aurrekontu-Proiektua (onartu gabea)

b) Kontu-Ganberaren txostena EZNi buruz

Atal honetan ezinbestekoa da aipatzea Kontuen Ganberak Enplegu-Zerbitzu Nafarrari buruz egin duen fiskalizatze-txostena.

Txostenak zerbitzu honen funtzionamendua aztertzen du; Nafarroako Gobernuak 1998an sortu zuen Estatuak eskualdatutako prestakuntza-politikak eta enplegu-politika aktiboak kudeatzeko. Enplegu-politika aktiboak finantzatzeko Nafarroako, Estatuak eta EBko funtsak erabiltzen dira (2005-2010 epealdian Nafarroak 169 milioi bideratu zituen, Estatuak

132, eta Europak, 13).

EZNaren antolakuntzari buruz, zuzendaritza organoetan Administrazioako, CEN patronaleko eta UGT eta CCOO sindikatuetakako ordezkariak daude. Hain zuzen, Kontu-Ganberak nabarmentzen duenez, *“saihestu egin beharko litzateke erakunde berak EZNaren moduko organismo baten zuzendaritza organoetan parte hartzea, zeinek lankidetzat hitzarmenei aurrez adostasuna ematen baitiete, eta era berean horien onuradun izatea, enplegurako lanbide-heziketarako diru-laguntzen esparruan”*.

Izan ere, Kontuen Ganberak erabaki duenez, 2008 eta 2010 artean UGTk, CCOOek eta CENek jaso dituzten diru-laguntzak EZNaren baitan 61,4 milioi euro izan dira. Zehazki, UGTk 21,4 milioi jaso zituen, CCOOek, 20,8 (gehi 0,8 ANAFE bere fundazioak), eta CENek, berriz, 18,2.

Txostenak islatzen duen konturik larrienetakoa, Kontu-Ganberaren arabera, hau da: *“ezin izan da ebatzi laguntza horiek zenbateraino izan diren eragingarri”*, ez baitago azken emaitza epaitzeko helburu eta neurgailurik, eta eskari bat egiten du, *“aurrekontu-programen neurgailuak berrikustea zerbitzuaren jarduna epaitzeko”*.

Gainera, beste gomendio bat egiten du: baremoak aldatzea, oraingoekin *“ia ezinezkoa baita prestakuntza-jarduerak eskaintzeko zentro berriak agertzea”*.

c) Elkarrizketa sozialaren finantzaketari buruzko ondorioak

1.- Nabarmena da elkarrizketa sozialak ez duela balio Nafarroako egoera laborala hobetzeko, eta marrazten diren politikek ez dituztela langile-kласearen arazoak konpontzen (langabezia, prekaritatea, laneko istripu eta gaixotasunak...).

Horregatik ezin du Kontu-Ganberak ere erabaki diru-laguntzak eragingarriak ote diren (EZNari dagokionez). Horrenbestez, pentsa liteke diru-laguntzak irauteak beste helburu batzuk dituela.

ELAren iritziz, eredu honek bake soziala dakar berarekin: ezartzen diren politikak laguntzea, parte hartzen duten erakundeei (UGT, CCOO eta CEN) funts publikoen zati bat esleitzearen truke, kudea ditzaten.

2.- Kudeaketa eredu honen funtzionamendua ez da oso gardena.

- Elkarrizketa sozialaren kudeaketari eta honetara bideratzen den diru publikoari buruzko informazio eza larria da.
- Kontu-Ganberak berak nabarmentzen duenez, diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek ematen diete oniritzia EZNean.

12. ONDORIOAK

Aztertutako datuek adierazten dute nafar exekutiboak erabaki duela gastu publikoa zeharo murriztea. Gizarte nafarraren beharrianak aintzat hartu ez eta lehentasuna ematen dio Madrilen autonomi-erkidegoen defizit publikoari buruz ezarritako erabakiei men egiteari, eta egoera hobetu ordez langabezia, zailtasunak eta txirotasuna areagotzen dituen sistema batekin jarraitzeari.

Ezin mantenduzkoa da krisiaren ondorioz baliabiderik ez dagoela dioen diskurtsoa; guztia borondate politiko kontua da. Borondate politiko batego, zerga-politika justuago eta eragingarriagoa egin ahal izango litzateke, baita herritarren beharriari erantzuteko moduko gastu-politika bat ere. Politika publikoak goitik behera aldatzea ezinbestekoa da, beraien helburua pertsonak izan daitezen, eta ez kapitala.